

- 35. artikulua.–Tutoretza eta orientazioa.
- 36. artikulua.– Eskola-orientazioaren banakako txostena.
- 37. artikulua.– Aniztasunari erantzuteko neurriak.
- 38. artikulua.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako aukeramena eta indargarriak.
- 39. artikulua.– Esku-hartze globaleko proiektuak eta berriazko indargarriak.
- 40. artikulua.– Ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak, curriculum-aniztasunaren bidez.
- 41. artikulua.– Eskolatze Osagarriko Programak.
- 42. artikulua.– Gela egonkorak.
- 43. artikulua.– Helduarora igartzeko programak.
- 44. artikulua.– Hezkuntza-sisteman berandu sartutako ikasleak.

VI. KAPITULUA

TUTORETZA, ORIENTAZIOA ETA ANIZTASUNAREN TRATAERA

35. artikulua.– Tutoretza eta orientazioa.

1.– Orientazioa etengabeko laguntza-prozesu sistematikoa da, hezkuntza-jardueran sartzen dena, ikasleei oinarrizko konpetentziak eskuratzeko laguntza emateko asmoz, beren proiektu personalaren eta profesionalaren jabe izan daitezen eta herritartasuna gauzatu dezaten.

Ikaslea ikaskuntza-prozesuan eta bizi-garapenean laguntzeko ardura irakasle-taldeari dagokio eta, bereziki, tutoreari (bere erantzukizuna dira bere taldeko ikasleen orientazioa, taldeko irakasleen koordinazioa, eta familiekiko eta legezko tutoreekiko komunikazio arina).

2.– Tutoretza Planaren bidez antolatzen da tutoretza-saioetan landu beharreko orientazioa (plana Ikastetxeko Curriculum Proiektuaren zati da), eta tutorearen esku-hartzea sistematizatzen da ikasleen banakako edo taldekako jarraipenean, familiekiko harremanetan, eta irakasleekiko zein kanpo-eragileekiko koordinazioan.

3.– Ikastetxeetako Tutoretza Planek atal hauek izango dituzte, gutxienez:

- a) Tutoretza-saioetan landuko diren konpetentziak, helburuak eta edukiak, ikasleen premiei egokituta.
- b) Tutoreak ikasleekin, taldeko irakasleekin, familiekin eta abarrekin egin beharreko lanak.
- c) Ekintza horiek ikasturtean zehar egiteko plangintza.
- d) Plana ebaluatzeko irizpideak.

4.– Tutoreei dagokie Plan hori aurrera eramatea, taldeko irakasleekin eta ikasle-taldearen gainerako eragileekin batera. Ikastetxeko orientatzaileek lagunduko diote lan horretan.

5.– Taldeko tutoretza-saioen helburua da gainerako irakasleekin batera lan egitea, modu programatuan, sistematizatuan eta koordinatuan, oinarrizko zehar-konpetentzia guztiak garatzeko, tutoretza baita horretarako gunerik egokiena.

6.– Taldeko tutoretza-saioen edukiak lau ardatz hauen arabera antolatuko dira: garapen personala, besteekiko harremanak, orientazio akademiko-profesionala eta ikaskuntza-prozesuak. Multz bakoitzeko edukia aldatu egingo da Oinarrizko Hezkuntzan zehar, ikasleen beharrei eta interesei egokitzeko.

7.– Ikastetxeko irakasle aholkulariak edo orientatzaileak egingo du Tutoretza Planaren koordinazioa eta segimendua. Gainera, tutorearekin eta irakasleekin batera ariko da ikaskuntza-zailtasunak

hautematen eta aztertzen, eta ikasle guztiek arrakasta izateko erantzun inklusiboen gaineko aholkularitza emango du; ikastetxez kanpoko gizarte-heziketako eta komunitateko eragile eta babesleekiko elkarlana koordinatuko du; eta familiei zein ikasleei lagunduko die eskola-ibilbidean zehar, eta orientabidea emango die beren gaitasunak eta interesak ahalik eta hobekien gara ditzaten.

8.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak jarraibideak emango ditu Oinarrizko Hezkuntzako Tutorretza Planak egin eta aurrera eramateko.

36. artikulua.– Eskola-orientazioaren banakako txostena.

1.– Tutoreak, taldeko irakasleen laguntzaz, eskola-orientazioaren banakako txostena egingo du, familiei informazioa eta ikasleei aukeren gaineko orientabideak emateko. Txosten hori gutxienez behin egingo da Lehen Hezkuntza amaitzean, bai eta aparteko egoerak gertatzen direnean ere; adibidez, mailaz ez igotzean. Txosten horiek guztiak konfidentzialak izango dira.

2.– Lehen Hezkuntzaren amaierako eskola-orientazioaren banakako txostenean adieraziko da konpetentzien eskuratze-maila; bereziki, ikasle bakoitzaren hezkuntza-aurrerabidea gehien baldintzatzen dutenak, bai eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren hasieran banakako arreta bermatzeko garrantzitsutzat jotako alderdiak ere.

Lehen Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako igarobidea errazteko, etapa bien arteko koordinazioari arreta berezia eskainiko zaio. Horretarako, kontuan hartuko da, besteak beste, banakako eskola-orientazioari buruzko txostena zein Lehen Hezkuntzako azken ebaluazioan lortutako mailari buruzko txostena.

3.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa baten amaieran egin beharrekoa txostenean, berriz, etorkizun akademikoaren eta profesionalaren gaineko orientabideak aipatuko dira.

4.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasturte bakoitzaren amaieran, tutoreak, taldeko irakasleekin elkarlanean eta orientatzailearen laguntzaz, eskola-orientazioaren banakako txostena egingo du, familiei informazioa eta ikasleei aukeren gaineko orientabideak emateko. Txosten horretan jasoko da ikasturteko helburuetan eta proposamena eragin duten oinarrizko konpetentzien eskuratze-mailan izandako betetze-mailari buruzko informazioa, eta ikaslearen espedientean sartuko da.

37. artikulua.– Aniztasunari erantzuteko neurriak.

1.– Hezkuntzako esku-hartzeak ikasleen aniztasuna aitortu eta errespetatu behar du. Halaber, ikasle guztien oinarrizko konpetentzien garapen gorenara lortzera bideratutako arreta espezializatua bermatu behar du.

2.– Aniztasunari erantzuteko neurriek ikaslearen hezkuntza-premiak asetzea izan behar dute xede, ingurune normalizatu eta inklusiboan. Neurriek, halaber, ikaslearen ikasteko interesak, motibazioak eta konpetentziak hartu behar dituzte kontuan, eta, edonola ere, Haur Hezkuntzako ikaslearen irteera-profilerako ezarrita dagoen konpetentzia-maila lortzeko bideak aurreikusi behar dituzte.

3.– Berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleak garaiz hautemateko mekanismoak ezarri behar dira ikastetxeetan, honako ikasle hauek banakako hezkuntza-arreta behar baitute, ondorengo baldintza hauetakoren batengatik:

– Desgaitasunen bat edo jokabide-nahaste larriak dituztenek.

- Ikasteko zailtasunak dituztenek.
- Gaitasun intelektual handiak dituztenek.
- Hezkuntza-sisteman berandu sartu direnek.
- Egoera pertsonal edo eskolaldi bereziak izan dituztenek.
- Desberdintasun sozialak pairatzen dituenek.
- Arreta-faltagatik eta hiperaktibitateagatik desoreka dutenek.

Ikasleen beharrianak hauteman ondoren, curriculum- eta antolaketa-neurri egokiak hartuko dira, ikasle guztien aurrerabide egokia bermatzeko.

4.– Aniztasuna tratatzeko neurrien artean, honako hauek ezarri ahal dira Oinarrizko Hezkuntzako bi etapetan: dagozkien espezialitateko irakasleak eta profesional kkuualifikatuak ezartzea, ikasgelan bi irakasle batera aritzea, tutoretza pertsonalizatua, ikasgelako harremanak aberasteko metodologia-aldaketak, taldeak bikoiztea, eskola-orduez kanpoko laguntzak, banakako lan-planak, curriculum-a aberastea, aldatzea edo hedatzea, derrigorrezko eskolatzea beranduago edo lehenago hastea, edota eskolatzeko-aldia malgutzea.

Gainera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, honako hauek ere aintzat hartu ahal dira: ikasgaiak esparruka antolatzea, ikasgaiak eta ibilbideak eskaintzea, ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak, eskola osagarriko programak, eta berariazko hezkuntza-beharrak dituzten ikasleentzako bestelako erantzun espezializatuak.

5.– Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei dagokienez, curriculumaren ebaluazio-irizpideetatik eta edukietatik aldentzen diren egokitzapenak ezar daitezke. Egokitzapen horien helburua izango da oinarrizko konpetentziak ahalik eta gehien garatzea, eta ikaslearen laneko plan pertsonalizatuan jasoko dira. Egokitzapen horietan finkatutako ebaluazio-irizpideen arabera izango dira ebaluazioa eta maila-igoera.

6.– Gaitasun intelektual handiko ikasleen eskolatzea malgua izan daiteke, beren ikaskuntza-erritimoa egokitzeko. Hala, lehenago sar daitezke etapan, edo haren iraupena laburtu, baldin eta hori bada ikaslearen oreka pertsonala eta gizarteratzea garatzeko egokiena. Ikasle horiekin esku hartzeko proposamenak plan pertsonalizatu batean jasoko dira, normalizazio- eta inklusio-irizpideak betez eta ikaslearen arreta integrala bermatuz.

38. artikulua.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako aukeramena eta indargarriak.

1.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumak aukeramena eta indargarriak eskaintzen dizkie ikasleei, helburu hauekin: etapa hori hasten den unetik aurrera ikasleen interesei eta premiei erantzutea, ikaskuntza indartzea ikasleak premia handiena duen gaitetan, orientazio akademikoa eta bizitza aktiborako trantsizioa erraztea, eta oinarrizko konpetentziak garatzen laguntzea.

2.– Aukeramenari dagokionez, ikastetxeak eskaini ahal izango ditu ikasleek lehenago eman gabeko ikasgaiak eta indartzeko ikasgaiak, ikastetxeak proposatu eta Hezkuntza Administrazioak baimendu dituenak, Dekretu honen 15.9 artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz.

3.– Laugarren mailan murriztu egin daitezke ikastetxeak finkatutako ikasgaien aukeramena, baldin eta ikasle gutxiegi badaude ikasgai horietako batean, aurrez ezarritako irizpide objektiboen arabera.

4.– Ikastetxeek informazioa eta orientabidea emango diete ikasleei, egindako aukeraketa baliagarria izan dadin oinarrizko ikasketak finkatzeko eta gerorako heziketa-aukerak edo laneratze-aukerak errazteko.

39. artikulua.– Esku-hartze globaleko proiektuak eta berariazko indargarriak.

1.– Esku-hartze globaleko proiektuen helburua da egoera sozial, ekonomiko edo kultural okerragoan dauden ikasleen emaitzen prebentzioa eta hobekuntza, besteen aldean desabantailan dauden eta kompetentzietan Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeen batez besteko emaitzen azpitik dauden ikasleentzat zuzentasunaren eta kalitatearen printzipioak bete daitezen.

Ikastetxeek baliabideak izango dituzte eta neurriak hartuko dituzte barruko eta kanpoko ebaluazioetan agertutako diferentziak murrizteko. Kontuan izango dituzte ikerketen eta ekimen arrakastatsuen arabera emaitzak hobetzeko onenak diren datuak ere.

2.– Berariazko indartze-programak hezkuntza-premia bereziak dituzten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren ikasturteko ikasleentzat dira, ahulezia-egoeran dagoen gizarte- edo kultura-ingurune batean daudelako, edo eskolara egokitzeko arazo larrien ondorioz porrota jasateko arriskuan daudelako.

3.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak finkatuko ditu, berariazko deialdien bidez, proiektu eta programa horiek aurrera eramateko baldintzak.

40. artikulua.– Ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak, curriculum-aniztasunaren bidez.

1.– Curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programak gauzatu ahal dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailatik aurrera. Berariazko metodologia bat erabiliko da, irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak antolatuz. Horrela, ikasleak laugarren mailara ohiko bidetik iritsi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua eskuratu ahal izango dute.

2.– Programa horiek batez ere izango dira ikasteko edo eskolara egokitzeko zailtasun nabariak dituzten ikasleentzat, ikasketa- edo ahalegin-faltagatik ez denean, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua lortzeko moduan daudenean.

Taldeko irakasleek ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko curriculum-aniztasuneko programa bat proposatu ahal diete gurasoei edo legezko tutoreei, edozein etapatan gutxienez ikasturte bat errepikatu duten ikasleentzat, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren ikasturtea eginda hirugarren ikasturtera pasatzeko moduan ez dauden edo, hirugarren ikasturtea amaituta laugarrenera pasatzeko moduan ez dauden ikasleentzat. Lehen kasuan, programa hirugarren eta laugarren ikasturteetan gauzatuko da eta, bigarren kasuan, laugarren ikasturtean bakarrik.

Curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa bati ekiteko, ezinbestekoa da ikaslearen ebaluazio akademikoa eta psikopedagogikoa, ikasleak eta haien gurasoak edo legezko tutoreak entzun ondoren.

3.– Programak modu integratuan edo esparruka antolatuko dira:

a) Modu integratuan antolatuz gero, ikasleek talde arruntetan emango dituzte hirugarren eta laugarren mailako ikasgai guztiak, banakako lan-proposamen baten barruan.

b) Esparruka antolatuz gero, gutxienez berariazko bi esparru hauek finkatuko dira:

– Hizkuntza- eta gizarte-esparrua (gutxienez, Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Atzerriko Lehen Hizkuntza eta Geografia eta Historia).

– Zientzia- eta matematika-esparrua (gutxienez, Matematika, Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika, eta Teknologia).

Berriazko taldeak sortuko dira programa horietan dauden ikasleentzat, eta erreferentziazko talde bat izango dute beste ikasgaiak emateko.

4.– Programa bakoitzak zehatz azaldu behar ditu metodologia, edukien eta ikasgaien antolaketa, eta etapako helburuak eta konpetentziak eskuratzeko jarduera praktikoak, ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua lortu ahal izan dezaten.

Gainera, tutoretza-lana sendotuko da hezkuntza-baliabide gisa, ikasleen zailtasunak eta hezkuntza-premiak konpontzeko.

5.– Ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa bat egiten duten ikasleen ebaluazioak mugarri ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako konpetentziak eta helburuak, ebaluazio-irizpideak eta, halakorik balego, banakako planeko adierazleak.

6.– Curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programa bat egiten duten ikasleen ebaluazioak mugarri ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen irteera-profila, ebaluazio-irizpideak eta banakako planeko adierazleak.

7.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak finkatuko ditu, berriazko deialdien bidez, proiektu horiek aurrera eramateko baldintzak.

41. artikulua.– Eskolatze Osagarriko Programak.

1.– Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duen ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuan ezarritakoaren arabera, Eskolatze Osagarriko Programak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta programaren hasierako urteko abenduaren 31n gehienez 15 urte dituzten ikasleentzat dira. Programa horien hartzaileak heziketa-prozesuan berriazko laguntza behar duten ikasleak dira. Izan ere, ikasle horien laguntza-premiak ezaugarri pertsonal larrietan edo eskola-historialean oinarritzen dira. Dena den, ikasleok programan sartu aurretik, agortuta egon behar dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak aniztasunari arreta emateko aurreikusita dituen neurri guztiak.

2.– Ikasle horiek heziketa-prozesuarekiko, ikaskideekiko, irakasleekiko eta gizartearekiko jarrera baikorrak edukitzea bilatzen da, hartara arlo pertsonalean eta sozialean aurrera egin dezaten eta, programa amaitu ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak lortzeko prozesuari berrekin diezaioten.

3.– Eskolatze Osagarriko Programak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen duten eta funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeetan egingo dira edo, bestela, gizarte-heziketako erakundee-tan (hitzarmen edo itun bat izenpetu badute hezkuntza-eskumenak dituen sailarekin, berriazko deialdien bidez).

42. artikulua.– Gela egonkorak.

1.– Gela egonkorak ezohiko berriazko baliabide bat dira hezkuntza-premia berezi iraunkorrak dituzten ikasleentzat (larritasun handia, muga funtzional larriak eta babes-premia orokorrak dituztenentzat, eta berriazko curriculum eta banakako arreta behar dutenentzat).

2.– Gela egonkorak 16 urte arteko ikasleentzat izango dira. 2.– Ikasle bakoitzak Banakako Lan Plan bat izango du, eta Gela Egonkorreko berriazko programazioa izango da haren erreferentzia.

43. artikulua.– Helduarora igarotzeko programak.

1.– Helduarora igarotzeko programak prestakuntza-eskaintza berezi bat dira, desgaitasun larriren baten ondorioz hezkuntza-premia bereziak dituzten eta derrigorrezko eskolatzealdia amaitu ondoren Oinarrizko Lanbide Heziketara sartzen ez diren ikasleak bizimodu aktiborako prestatzeko Gehienez lau ikasturtez hartuko dira ikasleak, orokorrean 20 urte bete arte. Salbuespenez, ikasle horien eskolaldia 21 urtera arte luza daiteke, betiere, ikaslearen jarrerei eta interesei erreparatuta, ebaluazio-taldeak uste badu ikaslearen autonomia handitzeko modua izan daitekeela.

2.– Programa horiek Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan emango dira, Ikastetxeko Curriculum Proiektuan txertatutako programazio berezi bat izango dute, eta ikasle bakoitzak Banakako Lan Plan bat izango du, erreferentzia gisa ikasgelako berariazko programazioa hartuko duena.

3.– Helduarora igarotzeko programak bi motatakoak izango dira:

a) Zereginen Ikaskuntzarako Programak, desgaitasun intelektual neurrizko edo larriren bat duten eta konpetentzia profesionalik lortu ez baina trebetasun profesionalen bat lor dezaketen ikasleentzat berariaz prestatutakoak.

b) Autonomia Pertsonal eta Sozialerako Programak, desgaitasun larriren bat duten eta horregatik konpetentzia edo trebetasun profesionalik lortu ezin duten ikasleentzat berariaz prestatutakoak.

44. artikulua.– Hezkuntza-sisteman berandu sartutako ikasleak.

1.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak irizpideak sustatuko ditu hezkuntza-sisteman berandu sartutako ikasleak modu inklusiboan eskolatzeko. Hezkuntza-sisteman berandu sartzen den ikaslea eskolatzeko orduan, ikastetxeek kontuan izango dute ikaslearen adina, historia akademikoa, jakintzak eta bestelako ezaugarriak, ahalik eta modurik positiboenean, oinarrizko konpetentziak eskura ditzan derrigorrezko eskolatzea amaitzean.

2.– Berandu eskolatutako ikasle batek gabezia handiak baldin baditu ikastetxeko eskolatzeko-hizkuntzan, berariazko arreta emango zaio, berariazko programen bidez. Talde arruntean eskolatzearekin batera emango da arreta hori.

3.– Konpetentzien mailan bi urte edo gehiagoko desfasea dakarten ikasleak adinez dagokiena baino maila bat beherago eskolatu daitezke, baldin eta etapa amaitu ahal badute oro har ezarritako adin-mugen barruan. Indartze-neurriak hartuko dira ikasle horiek eskolan integratzeko, desfasea gainditzeko eta ikasketak ganoraz jarraitu ahal izateko.